



# Aurrez aurreko itzulera seguru eta osasuntsurako proposamena

2020ko ekainaren 30ean



[www.lab.eus](http://www.lab.eus)

## Aurkibidea

1.- Helburua .....	03
2.- Kontingentzia Planean jasotzekoak .....	04
3.- Heziketa berezia .....	10
4.- Sukaldeetako protokoloa .....	12
5.- Garbitzaileak .....	15
6- Haur hezkuntza, 0-3 etapa.....	18

2

## 1.- Helburua

Covid-19ak sortuko egoera kontuan izanik, 2020/2021 ikasturtean, Hego Euskal Herriko ikastetxe eta eskoletara aurrez-aurreko ikasketetarako itzulera seguru eta osasuntsua bermatu dadin, LAB Sindikatuaren iritziz garrantzizkoak diren prebentzio neurriak zein diren argitu nahi ditu dokumentu honek. Langileon zein erabiltzaileen itzulera horretan lagungarri izango direlakoan.

Espainiar Estatuko Gobernuak zein Lan Agintaritzak emandako prebentzio neurriak etengabe aldatu dira itxialdi fasea bukatu eta deseskalada fasean egon garen bitartean. Zer esanik ez EAE zein Nafarroan; autonomia erkidego bakoitzeko gobernuak nahieran ezarri dituzte Hezkuntza arloari zegozkion prebentzio neurriak. Kasu bietan aldebakartasunez eta langileon ordezkari garen sindikatuokin negoziatu gabe, eta gainera, prebentzio neurrien ardura ikastetxeen zuzendaritzen gain jarritz.

LABen iritziz, Covid-19ak kutsatzeko balizko arriskuak ahal den neurrian arindu, hedapena mugatu eta moteltzeko helburuarekin, ikastetxe, eskola zein lantoki guztietan prebentzio neurriak jarri behar dira, plangintza orokor baten baitakoak direnak eta irizpide komunak dituenak. EAEko eta Nafarroako Hezkuntza Departamentuen ardura da plangintza orokor eta irizpide komun horiek ezartzea.

Prebentzio neurri hauek, osasun eta segurtasun arriskuak zein diren aurreikusita Kontingentzia Plan batean jaso behar dira; neurriak ikastetxe bakoitzaren ezaugarrietara egokiturik egon behar dira eta langile eta erabiltzaileei hauen berri eman behar zaie. Covid-19az kutsaturiko kasuren bat edo kontaktu esturen bat agertzen den momentuan, honi aurre hartu eta erantzunik egokiena emateko helburua izan behar dute ere Kontingentzia Plan hauek.

Hortaz, hurrengo ikasturteko Itzulera Planetan edo Ikasturte Hasierako Planetan hiru eszenatoki desberdinetarako aurreikuspenak jaso beharko dira:

- Gaixotasuna kontrolaturik dagoen egoera.
- Gaixotasunaren suspertzea dagoen egoera.
- Itxialdi egoera.

3

## 2.- Kontingentzia Planean jasotzekoak

### 2.0.- Ikasleekin aurrez aurreko ikasketetara edota lanerako itzulera baino lehen:

Lanera itzuli baino lehen **langile guztiei testak egin beharko zaizkie**, gaixotasuna kontrolatzeko modurik eraginkorrena da momentuz. Lehentasunez, aurrez aurreko lanean etengabe aritu diren kolektiboak: garbitzaileak, zuzendaritza taldeak eta atezainak.

Gaixotasunaren susperraldia gertatzen bada, telelanean jarraitu beharko lukete, salbuetsita dauden langile hauek:

- 60 urtetik gorako langileak.
- Haurdun dauden langileak.
- Gaixotasun kronikoak dituzten langileak.
- Covid-19-arekin kontakturen bat izan duten langileak (kasuren bat familian egon bada).

## 4

### 2.1.- Ikastetxeko bakoitzak lan-guneen deskribapena egingo du.

Ikastetxe edota eskolako eraikin eta azpiegitura guztiak kontuan izan behar ditu, indibidualak diren lan-guneetatik haratago, lan-gune edota espazio komunen deskribapena eginez eta horien antolaketa egokia eginez, gaixotasunak sor dezakeen eszenatoki bakoitzerako.

### 2.2.- Ikastetxe bakoitzak lan postu eta prozesuen deskribapena

Eta, arlo eta materia desberdinetako irakasleak, 0-3ko haur hezitzaileak, hezkuntza laguntzako espezialistak, irakasleak, zuzendaritza, administrariak, garbitzaileak, sukaldariak, autobus begiraleak, autobus gidariak, jantokiko begiraleak, mantenuko langileak, atezainak, erizaina balego.

Lanpostuen arriskuen balorazioa egin beharko litzateke, arrisku fisiko eta psikosozialak kontutan hartuz, baita kasu hauetan biologia-kutsadurak eragin ditzakeen arriskuak ere, hau da, Covid-19aren kutsadurak sor ditzakeenak.

Ikastetxeko langile azpikontratatuak enpresek, bestelako enpresek edota kanpokoen bisitek ere ikastetxeko Kontingentzia-Plan hauetan adierazitako informazioa eta neurriak bete beharko dituzte.

### 2.3.- Telelana

Gaixotasunaren suspertzea dagoen egoeran, ezinbestekoak ez diren jarduerak guztiak telelanaren bidez egin daitezten sustatu eta erraztu beharko da, betiere, langilearen onspena duelarik.

Teelana egiten duenarentzat, sortzen dituen arriskuei aurre egiteko (gihar eta hezurretako minak, begien nekea, estresa, etab.) protokolo eta neurri zehatzak ezarriko dira.

## 2.4 Prebentzio koordinatzailea

COVID-19ak sortu lezakeen egoerari aurre egiteko, Nafarroako zein EAEko administrazioek prebentzioko koordinatzailearen izendapena aztertuko dute, zuzendaritzako pertsona baten edo langile baten izendapena aztertuz eta lan honetarako beharrezkoak dituen lan-orduak emanez, langile hauen lan-karga handitu gabe eta bestelako lanak egiteko ordezkatzuz.

Prebentzio Koordinatzaileak administrazioen Prebentzio Zerbitzuekin koordinatuta egongo dira eta hauen etengabeko aholkularitza, babesa zein lankidetzak jasoko dute. Bere egitekoa Covid-19ak sor litzakeen prebentzio arloko aparteko jarduerak koordinatzea litzateke. Ikastetxe bakoitzean izendatutako koordinatzailea langile guztientzako erreferentea izango da. Ikastetxean egiten diren ekintzen erregistroa eramatea gomendatzen da.

Prebentzio Koordinatzaile gisa izendatu den pertsona horri COVID-19ak eragingo balio, haren ordezkoa izendatu beharko da.

## 2.5.- Espazio-banaketa azterketa

5

Ikastetxeak espazioaren banaketa egingo du eta gutxienez 1,5 metroko segurtasun tartea bermatu behar du pertsonen artean.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako etapetan ikasle ratorik egokienak zein diren aztertuko dira, gehienez ere 15 ikasleko taldeak osatuz. Talde hauek egonkorak izango dira, eta ikasleak musukoak erabiltzetik salbuetsita geratuko dira; ez, ordea, irakasle eta gelara sartzen diren hezitzaileak.

Lehen Hezkuntzatik gorako ikasgela bakoitzean, gehienez ere 15 ikasle sartu ahalko dira, beti ere, euren arteko 1,5 metroko segurtasun-tartea bermatzen bada.

Ahal den neurrian kanpoko espazioen erabilera lehenetsiko da.

## 2.6.- Antolaketa, talde eta banakako neurriak ikastetxearen jarduera segurtasunez bermatzeko:

- Ikastetxeko langileen artean gutxienez 1,5 metroko segurtasun-tartea utzi behar da, langile bakoitzak lan egiten duen gune guztietan. Distantzia hori bermatzen ez denean, langileek nahitaez musukoa erabili beharko dute. Filtrorik gabeko FFP-2 motakoak lehenetsiko dira. Musukoa erabili eta gero, norberak gordeko du hurrengo erabilerara arte. Musuko hauek, egunero zortzi ordu edo gehiagoko erabilera izanez gero, bost egunetako erabilera dute.
- Langileen sarrera-irteeren ordutegiak berrantolatuko dira.

- Lantoki bakoitzean termometroak egongo dira, sartu aurretik langile eta ikasle zein erabiltzaile guztiei tenperatura hartzeko, sukarrak ez dutela ziurtatzeko. Neurketa horien erregistroa gordeko da.
- Segurtasun neurrien jarraibideekin kartelak jarriko dira, eraikinen sarreretan, geletan, jantokietan, komunetan zein espazio komunetan, informazioa ahalik eta gehien zabalduz.
- Instalazioen garbiketa indartuko da (egunean bi aldiz gutxienez), arreta berezia jarritz gaixotasunaren kutsatzean lagundu dezaketen gainazaletan. Garbiketa indartzeko ezinbestekoa izango da zerbitzua indartzea, beharrezkoa den plantilla hornikuntza eginez (administraziopekoak, ikastetxeko langileak zein azpikontraturiko enpresetakoak izan).
- Instalazio komunak erabiltzeko (aldagelak, jantokia, etab.) 1,5 metroko segurtasun tartearen errespetatuko da. Tarte hori mantentzeko txandak antolatu behar dira.
- Bilerak 1,5 metroko segurtasun neurria mantenduta egingo dira, eta ezinezkoa den kasuetan, musukoaren erabilera nahitaezkoa izango da. Segurtasun-neurriak bete ezin diren kasuetan, teknologia-aukerez baliatuko da, hau da, telefono-konferentziak edo bideo-deiak.
- Ekintzak erregistratuko dira: egiten diren ekintzen erregistro-liburu edo agenda bat egitea gomendatzen da; jarraibide edo ekintza horren data, ordua, arduradunak eta abar zehaztuz. Egoera honetan sor daitezkeen dokumentu guztiak ere gordeko dira: garbiketa-partearak, kanpoko mantentze-kontrolak, zerbitzu-albaranak, lan-bajak, etab.
- Eraikinean eskailera bat baino gehiago badago, bata igotzeko erabiliko da eta bestea jaisteko. Horren berri emateko kartelak jarriko dira.
- Jantokian 1,5 m-ko segurtasun tartearen mantenduko da eta ezinezkoa den kasuetan ordutegiaren zein espazioaren antolaketa egin beharko da zerbitzua ematen dela bermatuz.
- Komunetan eta aldagelaren edukiera mugatu egingo da, gutxienez 1,5 metroko distantziari eutsiz eta bertan behar den denbora erabiliz, pilaketak saihestuz. Toki hauetan garbiketa areagotuko da. Dutzak erabiltzea saihestuko da.
- Eskola-garraio zerbitzuan 1,5 m-ko segurtasun tartearen mantendu ezin den kasuetan ikasleek musukoak eramango dituzte.
- Osasun Arduradunen gomendioaren arabera jardun eta langile guztiei jakinarazi beharko zaie zeinen garrantzitsua eta legezko betebeharra den sintomak agertu direla jakinaraztea, ondoren zehazten den moduan:
  - Sintomak lanean agertzen badira:
    - Langile bat bat-batean gaixotzen bada lanean ari dela, SUKARRA (+37,5°), EZTULA ETA AIRE-FALTA sintomak dituela, berehala jakinarazi behar da.

- Harremanetan egon diren langileei egoeraren berri eman behar zaie.
  - Berehala, langileak lantokia utzi eta osasun agintariak kasu horietarako emandako gomendioei jarraituko die. LANGILEA BERE OSASUN-ZENTROAREKIN HARREMANETAN JARRI BEHARKO DA.
  - Giza Baliabideen Departamentuak, prebentzio-delegatuek eta ikastetxeko Prebentzio Koordinatzaile edo arduradunak gaixoaren jarraipena egiteko protokoloari eutsiko diote, eta, COVID-19 positibo bat atzemanaz gero, berehala eragile guztiei jakinaraziko zaie eta, bereziki, kutsatutakoarekin harremanetan egon diren langile guzti-guztiei.
- Sintomak etxean agertzen badira:
- Gaixotasunarekin bateragarriak diren sintomak dituen langilerik ez da lantokira joango eta berehala jakinaraziko dio ikastetxeko zuzendaritzari.
  - Osasun-zentroarekin harremanetan jarriko da edo osasun-agintariak adierazitako arreta telefonora deituko du.
  - Nolanahi ere, bilakaeraren berri emanen dio administrazioari edo enpresari.
  - Gaixoarekin harremanetan egon diren gainerako langileei dagokienez, Osasun Agintaritzak une bakoitzean ezartzen duen protokoloari jarraituko zaio.

## 2.7. Higiene neurriak

- Langileen garbiketarako eta higienarako materialaren eskuragarritasuna indartuko da.
- Ordukako geldialdiak egingo dira eskuak garbitzeko zein ezinbestean musukoekin lanean ari diren langileek arnasa hartu ahal izateko.
- Azalera guztiak (altzariak, lan-ekipoak...) instalazio komunak, igarotze-eremuak eta erabilera pertsonaleko guneak garbitzeko maiztasuna handituko da.
- Langileen artean eta langile eta ikasleen artean ez da partekatuko garbitu gabeko objekturik (grapagailuak, guraizeak...).
- Ikastetxeko eremu guztietan airearen berrikuntza areagotu behar da, ahal den guztietan, modu naturalean edo behartuan, birzirkulazioa ahalik eta gehien murriztuz eta iragazkien garbiketa/edo ordezkapena areagotuz.
- Ikastetxe edo lan-zentroan fitxatu behar badugu eta fitxatzeko era digitala bada, ekidin egingo dugu; eta aukera balego, fitxatzeko beste bideak jarriko ditugu martxan.

- Arreta postuetan (atezaintza zein bulegoak) balizatzeko zinta eta babes manparak jarriko dira. Postu bakoitzeko bana.

## 2.8 Neurri organizatiboak:

- Familiak ikastetxera bertaratu behar diren kasuetan aurrez hitzorduak hartuko dira.
- Eskolako gune guzti guztietan gehieneko edukierak ezarriko dira. Edukiera maximora heltzean, itxaroteko guneak sortuko dira (ilarak...) gutxieneko distantziak mantentzen direla bermatuta.
- Ikasle eta langileak une berean sartu eta irten ez daitezen neurriak hartuko dira, sarrerak eta irteerak mailakatuz.
- Pertsonen arteko kontaktua saihesteko:
  - Gutxienez 1,5 m-ko distantzia bermatzea. Ezinezkoa eta justifikatua balitz ordutegi malgutasuna, txandak... antolatuko dira.
  - Sarrera eta irteerak ate ezberdinetatik egitea.
  - Korridoreetan eta atseden-guneetan pertsonen ibilbideak zehaztu, beti 2m-ko distantzia bermatuta.
- Langile eta arreta jasotzen dutenen artean:
  - Barrera fisiko gardenak ezarri pertsonen arteko elkarrekintzetan 2m baino gutxiago egon behar badira edo dokumentazioa trukatzeko.
  - 2 m-ko distantzia mantentzeko seinalizazioak ezarri langileengana hurbiltzean.
  - Arreta jaso eta lanean dagoen pertsonaren artean oztopo fisikoak jarri.

8

## 2.9- Lanpostuen baldintzak:

- Aireztatze egokia egon dadila bermatu behar da. Aireztatzea areagotu eta filtroen garbiketaren maiztasuna handitu behar da. Aire egokituaren kasuan, birzirkulazioa ekidin behar da.
- Eguneroko aireztatzea egin leiho eta ateak irekiz.
- Gune komun garbiketa eta desinfekzioa indartu (eskulekuak, eskailerak, lanerako gainazalak...), birus garbitzaile homologatuekin garbitu.



- Janari makinak egongo balira, erabili aurretik eta ostean eskuak garbitu ahal izateko gela eskura dagoela bermatu.
- Etxetik eramandako janaria ontziratuta eraman.
- Ez partekatu mahai-tresnarik, ezta katilu edo edalontzirik.
- Komunak, igogailuak... banaka erabili. Norbait barruan dagoenean seinaleztatu. Igogailuen erabilera murrizteko neurriak hartu.
- Bereziki komunetan (baita beste espazioetan ere) eskuak garbitzearen garrantzia adierazten duten kartelak jarri.

## 2.10- Prebentzio neurriak.

- Norberaren Babeserako Ekipamenduen erabilera bermatu dadin hauen inguruko formazioa jaso behar da.
- Lanerako gailuen (telefonoa, ordenagailua...) erabilera bakoitzaren ondoren, desinfekzioa burutu behar du erabili duenak.
- Inprimagailua, enkuadernadorea, gillotina... erabili aurretik eta ondoren eskuak garbitzeko gela dagoela bermatu.
- Materialik ez partekatu (boligrafo, artazi, grapagailua, ...).
- Ahoa eta begiak ez ukitu eskuekin.
- Ilea bilduta eraman.
- Eztula egiteko ukondoa erabili.
- Etxera heltzean:
  - Ezer ukitu gabe eskuak garbitu.
  - Sarreran poltsa batean bildu kaletik dakarkigun materiala (giltzak, motxila...).
  - Eskolara eramandako jan-ontzia desinfektatu.

Etxera heltzean EZ jarraitu telelanarekin, lan orduak ikastetxean egin dituzu.

### 3- Heziketa berezia

Kontingentzia Plana egiteko azterketan, gure kolektiboko kategoria guztiak kontuan hartu behar dira: espezialistak, fisioterapeutak, terapeuta okupazionalak, zeinu-hizkuntzako interpreteak, transkriptoreak eta gizarte-langileak.

Arreta zuzena ematen den kasuetan, kontaktu fisikoa nahitaez egon behar denean, fisioterapeutak, terapeuta okupazionalak eta espezialisten kasuan, kontuan hartu beharko dira, egoera desberdinak: gela arrunta, gela egonkorak, zereginetako gelak eta ikasleriaren artean dauden kasuistika desberdinak ere. Ikasle askok behar asistentzialak dituzte, adibidez, batzuetan jarrera-arazoak dituztenekin kontentzio-lanak egin behar dira, autolesioak eta lesioak saihesteko; beste batzuek, aldiz, ez dute esfinterraren kontrola garatu.

Ikasle batzuek osasun-arazo ugari izaten dituzte, krisi epileptikoak, zunda gastrikoaren bidezko elikadura edota arnasketa arazoak. Kasu hauetan oso zaila da ikasleekiko urruntze neurriak gordetzea. Bestalde, arnasketa arazoak dituzten ikasleak arrisku taldean kokatuta daude, eta kutsatuz gero ondorio larriak pairatuko lituzkete.

Neurri orokorrez gain, hainbat gai kontuan hartu beharko dira:

10

#### Hezkuntza Laguntzako Espezialistak:

- Pantailak, eskularruak eta musukoak derrigorrezkoak izango dira.
- Osasun plan desberdinak izatea, Heziketa Bereziko Ikastetxeetarako, gela arruntetarako eta gela egonkorretarako.
- Ratioak aztertu eta jaitea. Hainbaten eskolen antolakuntza errazteko, hezitzaileok egunean zehar 5 ikaslerekin egon gaitzke. Irailean ordutegiak egiterakoan egoera berezia kontuan hartu eta hezitzaile bakoitza egunean gehienez 3 ikaslerekin egotea ezartzea, eta inoiz ez gela arruntetan 2 ikaslerekin batera.
- Saioen artean denbora hartu behar da atsedena hartzeko eta higiene-neurriak mantentzeko.
- Guneen antolaketa ondo egin, gela arruntetan ikaslearen ondoan kokatu behar gara eta hori kontuan izan behar da espazioa antolatzerakoan.

#### Terapeuta Okupazionalak:

- Materialen garraioa egin behar denetan, garbitzea eta desinfektatzea. Horretarako denbora hartu behar da eta produktu bereziak eskuragarri jarri behar dira.
- Aurrez aurreko lana derrigorrezkoa ez denetan telelana egiteko aukera ematea.

- Biltegiak urteko aurrekontutik at egongo den diru-partida izatea materialaren desinfekzioarako.
- Biltegiako materialen garbiketa eta desinfekzioa egitea.

### Hezkuntza Bereziko Ikastetxe edo zentroak:

- Etxeko aulkiak uzteko lekua egokitu eta honen desinfekzioa nola egin aztertu.
- Hezkuntza Bereziko Ikastetxeetako zuzendaritzekin adostasunez landuz:
  - Erizain bat egotea ikastetxean, erantzun soziosanitario egokia eman ahal izateko.
  - Amantalak erabiltzea, hauek garbitu ahal diren zentroetan bezalaxe (ospitaleetan erabiltzen direnak).
  - Testak egitea ikasleei eta langileei.
  - Irizpide medikoak erabiltzea ikasleak txandaka eskolaratzeko.
  - Aulkiak desinfektatzeko materiala eta giza baliabideak.
  - Garbitzaileen plantilla indartzea, hainbat desinfekzio lan burutu ahal izateko.
  - Koltxonetak babesteko erabilera bateko fundak.

### Gela terapeutikoak (EAEn):

EAEn hiru Gela terapeutiko daude, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako lurralde bakoitzeko bana. Gela hauetara doazen ikasleak, gehien bat, jarrera-arazoeekin lotuta daude, psikotikoak, etab. Zentro hauetan Osakidetzako osasun mentaleko zerbitzuarekin lan egiten da, askotan kontentzio-neurriak hartu behar baitira.

### Arreta Terapeutiko Hezigarria (EAEn):

ATH/UTEetan psikopatologiak dituzten ikasleak daude eta ospitaletako eta etxez etxeko esku-hartzeak egiten dira. Egoera horietarako segurtasun- eta osasun-neurri propioak ezarri beharko dira.

### Gela arruntetan integraturiko ikasleak:

Egoera berezi hauetaz gain, LHn, DBHn eta Batxilergoan integratuta dauden ikasleak ditugu. Integratuta dauden ikasleak, gehienetan desgaitasun fisikoa dutenak izango dira. Hauekin ere, orokorrean gure lanean urruntze soziala mantentzea zaila izango da.

## 4- Sukaldeetako protokoloa:

### 4.1- Sukaldeetako langileak babestea:

- Norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko prestakuntza eta informazioa ematea.
- FFP2 R musukoa (berrerabilgarria) eta babes-eskularruak ematea.
- Laneko arroparen garbiketa indartuko da; egunero aldatu beharko da nahitaez, eta nominan jasotzen den diru-partida handitu beharko da arropa gehiago erosten delako.
- Arropa garbitzeko, arropa arrunteko detergente bat erabiliko da, gutxienez 60º temperaturan. Ez da astinduko garbitu aurretik.

### 4.2- Sukaldeetako antolaketa-neurriak:

- Baliabideen eskuragarritasuna: osasun-agintariak gomendatutako segurtasun-neurri guztiak garatzeko behar adina baliabide ekonomiko eta estrategiko eduki behar dira.
- Zentroak Norbera Babesteko Ekipamendu bereziak jarri beharko ditu.
- Zentroak egoerara egokitutako garbiketa-produktuen eta babes-ekipamenduen stocka bermatu beharko du, uneoro prest daudela ziurtatzeko.

### 4.3- Sukaldeko lanaren antolaketa:

- Lanpostuen antolaketa, pertsonen zirkulazioaren antolaketa, espazioen banaketa eta txanden berrantolaketa egin behar da.
- Zereginak eta lan-prozesuak planifikatu behar dira, langileen arteko segurtasun-distantzia mantentzeko eta haien arteko harreman fisikoa gutxitzeko.
- Laneko arropa egunero garbitzea lan-zentroan.

### 4.4- Sukaldeko langileentzako neurri espezifikoak:

- Sukaldeko langileek Norbera Babesteko Ekipamendu egokia eta berezia erabili behar dute, arrisku-mailaren eta lan-arriskuen ebaluazioaren emaitzaren arabera dena.
- Segurtasun-distantziak errespetatzea.

- Ekipamendu mota hau gomendatzen da (NBE):
  - Erabili eta botatzeko ez diren nitrilozko eskularruak.
    - Partikulen aurkako arnas babesa (FFP2 maskara).
  - Garbiketa amaitu eta eskularruak eta musukoa erantzi ondoren, sukaldeko langileek urarekin eta xaboiarekin garbituko dituzte eskuak.
  - Estalkia duten kuboak jarriko dira, zaborra modu egokian kudeatzeko.

#### 4.5- Sukaldeen garbiketa eta desinfekzioarako prozedura:

- Establezimenduko instalazioak eta lan-ekipoak garbitzeko eta desinfektatzeko antolakuntza-kontrolak eta -neurriak egokituko dira, hau da, establezimenduaren garbiketa- eta desinfekzio-plana (L+D plana) indartuko da, zeina Autokontrol Sanitarioko Plan Orokorrean edo AKPKA/HACCP estandarrean zehazten baita:
- Garbitu beharreko azalera/ekipoak + desinfektatu beharrekoa (L+D) => (hauek barne: harrera-gunea, sukaldea, eskaerak jasotzeko gunea, jangela, aldagelak, komunak, eta horiek osatzen dituzten ekipamenduak eta azalerak).
  - Erabili beharreko produktuak.
  - L+D maiztasuna.
  - L+D arduraduna.
- Desinfektatzaile arruntak (lixiba, alkohola edo ur oxigenatuko disoluzioak) edo Bioziden Erregistroan inskribatutako detergenteak eta desinfektatzaileak erabiltzen direla ziurtatzea ([https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Listado\\_virucidas.pdf](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Listado_virucidas.pdf)).
- Erabilera-zehaztapen teknikoei jarraitzea, intoxikaziorik egon ez dadin. Erregistraturiko desinfektatzaileak langile espezializatuek erabili behar dituztenean, Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialean inskribatutako enpresetako teknikari kualifikatuek aplikatuko dituzte.
- Behar bezala garbitu eta desinfektatu ahal izateko, instalazioak baldintza egokietan eduki behar dira, hondatutako eremuak konpondua, ordenatuta eta beharrezkoak ez diren materialak eta objektuak kenduta.
- Klimatizazioa 23-26°C arteko giro-tenperaturan mantentzea gomendatzen da, aire nahikoa berritzen dela ziurtatuz (gutxienez, egunero eta bost minutuz).
- Paperontziak izatea, estalkia eta pedala daukatenak, zapiak eta erabili eta botatzeko beste material batzuk uzteko. Horiek maiz garbitu behar dira.
- Gogoratu:

- Ontzi-garbigailuetan ekipamendua garbitzea posible den guztietan (temperatura >80°C). Ondoren, desinfektatu ekipamendua, instalazioa zein gainazalak.
- Pasabiderako lixiba erabiltzea gomendatzen da, produktu desinfektatzaileak ere erabili daitezke.
- Lixiba desinfektatzaile gisa erabiltzerakoan, honela diluitu behar da: nahastu 20 ml lixiba 980 ml urarekin (litro bat lortuz), edo baliokidea, adibidez: 10 ml lixiba 490 ml urarekin (500ml lortuz). Prestaketa-egunean bertan erabili behar da.
- Desinfektatzaile komertzial bat erabiltzekotan, errespetatu etiketako oharra.
- Objektuak desinfektatzeko, materialak uzten duenean, soluzio hidroalkoholikoa duen oihal garbi bat erabili daiteke. Halakorik ezean, alkohol arrunta erabili daiteke (%96ko kontzentrazioa duena), honela diluituta: nahastuta 70 ml alkohol eta 30 ml ur. Ez dago argitu beharrik.

#### 4.6 – Lehengaiak jasotzea:

Elikagaiak eta beste intsumo batzuk biltegira sartzeko protokolo bat ezartzea, albaran elektronikoko sustatuz jantokiko arduradunaren kontrolerako. Sukaldera higienizatutako produktuak baino ez dira sartuko.

Uneoro beteko da enpresako Autokontrol Sanitarioko Plan Orokorrean edo AKKPA/HACCP estandarrean ezarritakoa. Neurri hauetan eragin beharko da:

- Higijene- eta osasun-neurriak:
  - Jasotako salgaien bilgarriak kentzea.
  - Hornidura-prozesuan kanpoaldearekin kontaktuan egon diren ontziak desinfektatzea.
  - Desinfektatu ezin diren gaiak, hala nola freskoak, elikatzeko erabili aurretik desinfektatuko dira.
  - Albaranek harrera-gune horretan egon behar dute, eta erabilitako gailuak (termometroak, boligrafoak) pertsona berak erabili behar ditu beti.
  - Paketeak/eskaerak jaso eta/edo manipulatu ondoren, eremua garbitu eta desinfektatu behar da, eta langileek eskuak garbitu behar dituzte urarekin eta xaboiarekin.

#### 4.7- Lehengaiak biltegitratzea:

Uneoro beteko da enpresako Autokontrol Sanitarioko Plan Orokorrean edo AKKPA/HACCP estandarrean ezarritakoa. Neurri hauetan eragin beharko da:

- Errespetatu segurtasun-distantziak, langileen arteko gurutzaketak saihestuz.
- Errespetatu biltegiaren gehieneko edukiera.

#### 4.8- Elaborazioak:

Uneoro beteko da enpresako Autokontrol Sanitarioko Plan Orokorrean edo AKKPA/HACCP estandarrean ezarritakoa. Neurri hauetan eragin beharko da:

- Langileen eremuak bereiztea gomendatzen da, lurrean markak jarritz edo antzeko beste neurri batzuk hartuz.
- Zerbitzu bakoitza hasi aurretik, laneko azalerak desinfektatu behar dira oro har.
- Xaboi-dosifikagailuak egongo dira konketaren ondoan. Lehortzeko, erabilera bakarrek papera erabiliko da, eta eskuz eragiten ez den estalkia duen zabor-ontzi batera botako da.
- Zerbitzutik kanpoko inori ez zaio utziko elikagaiak manipulatzeko eremuetan sartzen, ezta zerbitzukoak izanik bere lan-ordutegian ez dagoen inori ere.
- Elaborazio-eremuetarako bisitak babes-ekipamendu eta janzkera egokiarekin egingo dira beti.
- Elikagaiak manipulatzeko erabiltzen ditugun tresnak maiz garbitu.
- Desinfekzio berezia gordinik hartzen diren eta fruta, letxuga, tomatea eta ondorengo urberritzea bezalako garbiketa behar duten elikagaietan.

#### 4.9- Zerbitzua:

Uneoro beteko da enpresako Autokontrol Sanitarioko Plan Orokorrean edo AKKPA/HACCP estandarrean ezarritakoa.

## 5- Garbitzaileak

Covid-19ak sortutako egoera berezi honen aurrean egin behar den garbiketari aurre egiteko formakuntza espezifikoa beharrezkoa da; lixibaren erabilera masiboa egiten denerako, pulberizazioetarako edota produktu berrien erabilerarako. Produktu bakoitza noiz erabili eta nola erabili behar den jakiteko ezinbestekoa da formakuntza; garbiketarako beharrezkoak diren babes neurriak zein dosiak azalduz.

Horretaz gain, kontuan hartu behar ditugu:

- Gure lan-zentroan, lehenasunez, garbiketa eta desinfekzioan dabilzan langileei aurrez azaldutako neurri guztiak ezartzen eta errespetatzen zaizkiela bermatu behar dugu.
- Garbitzaileekin harreman eta elkarlan zuzena eta iraunkorra izango dugu. Haien lana errazteko, gure lanpostua txukun eta jasota utziko dugu lanetik irteten garenean.
- Ezinbesteko zerbitzu bat denez, inoiz baino gehiago areagotu behar da, era profesionalean egin eta behar diren bitartekoak eta giza baliabide nahikoa eman behar zaizkio zerbitzuari. Gaur egungo langile kopurua handitu behar da, erabat handitu direlako eginkizunak eta garbiketa maiztasunak.
- Garbitzaileek musukoarekin eta eskularrekin egingo dute bere lana, FFP2 NR musukoarekin (erabili bakarrekoa). Lana bukatzerakoan lehenetsi egingo da dutxa hartzea. Garbitzaileen aldagelak gaur egungo beharretara egokitu behar dira.
- Lanerako arropa, egunero garbituko da lan zentroan, garbigailuan 60°C baino altuagoko ziklo baten.
- **Instalazioen desinfekzioa ez da bakarrik garbiketako langileena, ardura hori, ikastetxeetan dauden langile guztiena da.** Adibidez, klasea bukatu eta gero gela aireztatzea komeni da; orduan irakaslearen ardura izango da.
- Erabilera pertsonalerako tiraderetan gordetzen diren tresnak, norberak desinfektatu behar ditu.
- Lanbide Heziketako tailerren tresneriaren desinfekzioa edota garbitasuna ez dagokio garbitzaileei (makinak, lanabesak). Oro har, ziklo guztietako material didaktiko guztiaren ardura irakasleena da, arbela barne.
- Mintegietako zein bulegoetako mahai-gainak tresneria eta objektu pertsonalik gabe egon behar dira azalera garbitu ahal izateko. Hobe da tiraderan gordeta egotea, eta ezinezkoa den kasuetan kutxa baten barruan (barruko garbiketa norberaren esku dago).
- Ahal dela, CPU eta ordenagailuen garbiketa erraztu eta mahai azpian ez jarri elementurik. Ordenagailu asko dauden geletan (kasu batzuetan 30 inguru egoten dira) egunero botoiak eta pantailak garbitu behar direnez, garbitzaileekin gutxieneko koordinazio bat egon behar da; adibidez, egunero erabili diren ordenagailuei pegatina gorriak jartzea.
- Hondakin biologikoa duten paperontziak infekziorako fokuak dira. Paperontziak kantitate murriztuan, leku egokietan eta eskura jarri behar dira. Horren



arduradunak izendatu eta kudeaketa lanetan nortzuk arituko diren zehaztu behar da-

- Ordezko langile zein eskolan berriak diren langileentzako harrera protokolo bat egin behar da, harrera hori nork egingo dion zehaztuko delarik.

### 5.1- Egunero garbitasunari dagokiona:

- Gortinak ez dira ukitu behar, kentzea planteatu daiteke eta kanpoko pertsiak jartzea.
- Gainazalak (mahai guztiak egunero).
- Mahai azpiko apalak (ikasleek asko ukitzen duten zonaldea da).
- Igogailua (ateak, botoiak, paretak). Mugikortasun arazoak dituztenen erabiltzaileentzako izan behar da soilik.
- Ordenagailuak (pantailak, teklatura, arratoia).
- Telefonoak, papera txikitze makina, inprimagailuak, etab.
- Tresneriaren desinfekzioa (laborategian, plastika gelan, tailerretan, etab. partekatu behar dituzten tresna asko egoten dira bertan).
- Gimnasioa (dutxak, horma-barrak, porteriak, koltxonetak, kirol material ezberdina).
- Aulkiak eta bankuak. Aulki kopuru itzela dago zentroetan, egunero erabiltzen direnak garbituko dira (ez bakarrik geletan daudenak, areto nagusikoak, liburutegikoak, irakasle gelakoak, mintegietakoak...) eta erabiltzen ez direnak baztertu.
- Eskulekuak eta bere ingurua. Ate zein leihoetakoak.
  - Izuaren aurkako barrak eta su-itxalgailuak ez dira egunero erabiltzen, hortaz, ez dira egunero garbitu behar.
  - Atezaintzako gelan mahai-gaina eta lurra garbituko dira soilik. Mostradorea balego ere.
  - Egunero garbigailu gehiago jartzeko beharra egongo da; garbitzaileen arropa, mopak, etab. Hau guztia eskegi eta jaso egin behar dela kontuan izan behar da.
  - Garbitzaileen lan-tresneria eta materiala egunero desinfektatu behar da.
  - Zentrora helduko den garbiketa material berri guztiaren kudeaketa egin behar da, zuzendaritza taldearekin koordinatu behar da.

- Osasun-arazoak ekiditeko garbitzaileen funtzioak zeintzuk diren zehaztu behar dira.

## 6- Haur hezkuntza, 0-3 etapa

Plan honek, haurren eskubideak oinarri hartuta, familia eta langileei begira beharrezkoak izango diren babes neurriak jaso behar ditu. Informazioa langile bakoitzari banan-banan bidali behar zaio, langileak Haurreskolak Partzuergokoak, azpikontrataturako enpresetakoak zein enpresa laguntzaileetakoak izan.

Prebentzio Zerbitzuak lantoki guztietan osasun krisi honetarako beharrezkoak izango diren haur eta langile bakoitzaren babeserako ekipamendua hornitzeko ardura izango du.

Haurrekin segurtasunezko distantzia betetzea ezinezkoa denean, musuko gardenen erabilera aztertuko da (hauek oraindik ez daude homologatuta) edo plastikozko pantailak erabiliko dira.

### 6.1- Hezitzaileak:

- Hezitzaileok lanerako erabilitako arropa, egunero, haurreskolan bertan garbituko dugu.
- Lana jardun jarraian egitea lehenetsiko da.
- Hezitzaileen prestakuntza-orduak luzatuko dira dagozkien garbiketa eta antolaketa lanak egiteko.

### 6.2- Familiak:

- Haurreskolara joan aurretik haurrari tenperatura hartu behar diote. Edozein sintoma izatekotan, ezin izango dira haurreskolan sartu.
- Hezitzaileak haurrak sarreran hartuko dituzte. Haurreskolara sartu aurretik tenperatura hartuko zaie. Haurreskolara sartzeko, oinetako pantuflak eta musukoak jarriko dituzte eta eskuak hidroalkoholarekin garbituko dituzte.

### 6.3- Haurrak:

- Haurreskolara joan aurretik tenperatura hartuko zaie.
- Haurreskolako sarreran tenperatura hartuko zaie.
- Egunean zehar sintomaren bat badute, etxera joan beharko dira.

#### 6.4- Haurreskolako Espazioak:

- Gelak:
  - Egunero bi alditan desinfektatu behar dira (hau ez da ohiko garbiketa).
  - Gela bakoitzak duen materiala ezin da beste gela batera eraman.
  - Haurren sehaskak, aulkiak, tronak... erabili eta gero desinfektatu behar dira. Jostailuak, egunero desinfektatu behar dira., egokienak diren produktuekin hornituko dira haur eskolak. Prestakuntza denbora handitu behar da eta arreta zuzena murriztu, babes neurriak behar bezala betetzeko.
- Hezitzaileek bazkaltzeko, atsedena hartzeko eta aldagela erabiltzeko txandak egingo dira. Sarrera eta irteera ordutegiak ere berrantolatuko dira hezitzaileek ez kointziditzeko.
- Kanpoaldera irteteko, gelaka txandaka irtengo dira.
- Kanpoaldearen erabilera lehenetsiko da:
  - Honek espazioen banaketa eta antolaketa eskatzen du. Espazio zabalen erabilpena sustatu egingo da. Eskola barruan dauden haurreskoletan, espazio horiek erabiltzen saiatuko da. Horretarako, ezinbestekoa izango da udalekin elkarlana.
- Bazkariak eta siestak norberaren geletan egingo dira; edota kanpoaldean. Ez dira haurreskoleta jangelak erabiliko, eta horretarako gelak egokitu beharko dira.
- Egoerak eskatzen duen garbiketa berezia bideratzeko, Partzuergoa udalekin koordinatutzeaz arduratuko da (udalei baitagokie Haurreskolen mantenu eta garbiketaren ardura). Honek guztiak udaleko garbitzaileekin koordinazioa eskatzen du. Hezitzaileek garbitzaileei zuzendu zaizkien garbiketa protokolak ezagutu behar dituzte eta alderantziz.
- Ratioak gelaka ezarriko dira: bi hezitzaile talde batez arduratuko dira. Gelatik gelarako aldaketak ekidin egingo dira.

#### 6.5- Arlo pedagogikoa:

- Hezitzailearen erreferentzia beti garrantzitsua bada, oraingoan, osasun-ikuspuntu batetik, hezitzaile bakoitza ume konkretu batzuen ardurapean egingo da eta talde horretako umeekin baino ez da kontaktuan egingo.
- Egokitzapena: ohiko egoeran beharrezkoa diren epeak, oraingoan ere, (umeek oso kontaktu gutxi izan dute familiakoak ez diren bestelako nagusiekin) garrantzia handia hartzen du, beraz, gutxienez 5 egunetako egokitzapena egin beharko da.